

Hamatarpi

2013 ko uda



Ayuntamiento de Zigoitia
Zigoitiko Udala

**UDALEKO WEB ORRIALDE BERRIA _ GIZONEN ETA EMAKUMEEN ARTEKO BERTINTASUN I
PLANA _ ENERGIA NUKLEARRA EDO BERRIZTAGARRIAK? _ ZIGOITIA EUSKARAZ _ EUSKAL
PILOTA ESKOLA _ LIBURUTEGI BATEN ALDEKO ARRAZIOAK _ GORBEIA ESKOLAKO IGE _
ALOKAIRU UDAL ETXEBIZITZA**



ZIGOITIKO XV. ARGAZKI LEHIAKETAko 1. Saria: "Manurgako patateroak", Imanol Txirena



2. Saria: "9015 Zigoitiarra", Aitor Lizarralderena



3. Saria: "Maritxu", Elena Motarena

Hasteko

**04** Berdintasuna

Gizonen eta emakumeen arteko I Berdintasun Plana, eta genero indarkeriaren aurkakoa

Elkarrizketa

**06** Energia nuklearra edo berriztagarriak?

Fernando Legarda Ingeniaritza Nuklearreko Katedradunarekin eta Raquel Montón Greenpeace-ren Nuklearren Aurkako Kanpainaren Arduradunarekin hitz egin dugu



Planak

**09** zigoitia Euskaraz

Urte osoan zehar... eta baita iraileko bi asteburutan ere!

Orain eta hemen

**10** Pilota Eskola martxan!

Irailetik aurrera, udalerriko 6-16 bitarteko neska-mutil guztientzat

Made in Zigoitia

**13** Gorbeia Eskolako IGE

Edo nola parte hartu gure umeen heziketa-bizitzan

Liburutegitik, maitasunez

**14** Liburutegi baten aldeko arrazoiak

Javier Arbuluren kolaborazioa

Azkena

**16** Batzuk

· Alokairu udal-etxebizitza
· Autobus ordutegiak

Staff

HAMAZAZPI. Zigoitiko Udaleko aldizkaria · 2013 ko uda

Editatzailea: Zigoitiko Udala_ Kultura Saila · Bengolarra, 1 · 01138 ONDATEGI (ARABA)

T_ 945 46 40 41 · www.zigoitikoudala.com · info@zigoitikoudala.com

Koordinazioa: Rosa Ortiz de Mendivil · romendivil@hotmail.com

Diseinua eta maketazioa: Hirudesign Web Estudio S.L · www.hirudesign.com

Imprimaketa: Gráficas Irudi · www.graficasirudi.es · **Ale kopurua:** 1.020 ale · **Lege-gordailua:** VI-67/08

Aldizkari honetako testuak edota argazkiak kopia zeko, editatzaileari baimena eskatu behar da.

HAMAZAZPI Facebooken ere irakur dezakezu: www.facebook.com/hamazazpialdizkaria

UDALEKO WEB ORRIALDE BERRIA

Udalerriko informazio guztia eskuratu nahi zenuke?

Bisitatu www.zigoitikoudala.com web orrialde berria.

Eduki eta atal berriekin, intuitiboagoa eta ulergarriagoa, eta irudi erabat berriztatutarekin. Zigoitia maite baduzu, bere web orrialdea gogoko izango duzu!



2013ko Zerga-ordaintzailearen egutegia

ABELTZAINZA-KANONA

Borondatez kobratzeko epea:
2013-09-01 _ 2013-10-31

Helbideratutako ordainagiriak kobratzeko epea:
Urriaren hasieran.

LANDAK

Borondatez kobratzeko epea:
2013-09-01 _ 2013-10-31

Helbideratutako ordainagiriak kobratzeko epea:
Urriaren hasieran.

ZENTRO SOZIOKULTURALEKO IKASTAROK

Helbideratutako ordainagiriak kobratzeko epea:
Urriaren lehenengo hamabostaldian.

ORDAINTZEKO LEKUA ETA MODUA**INFORMAZIOA, ZERBITZUAK ETA KUDEAKETAK**

Udaletxea. Telefonoa: 945 46 40 41. Astelehenetik ostiralera 9:00etatik 14:00etara. Faxa: 945 46 40 52, e-mail: azigoitia.registrogeneral@ayto.alava.net

Finantza-erakundeetan helbideratu gabeko ordainketak:

Ordaintzeko lekuak: Vital Kutxaren eta Euskadiko Kutxaren bulegoetan. Internet bidez, web orri honetan: www.zigoitikoudala.org (Nire ordainketa).

Finantza-erakundeetan helbideratutako ordainketak: Zigoitiko Udalak zuzenean kudeatuko du ordainketa, helbideratu den finantza-erakundearen kontuan.

AHOLKUAK

Banku helbideratzeetan altarik edo aldaketarik egon bada edo interesduna etxebizitzaz aldatu bada, Zigoitiko Udalarri jakinaraziko zaio, hurrengo batean jakinarazpenak egin ahal izateko.

BETEARAZPEN EPEA

Araututako epea bukatu eta hurrengo egunean hasten da eta betearazte-errekarguak, premiamenduzkoak eta ohiko premiamenduzkoak ordaindu beharko dira Arabako Zergei buruzko otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorrak adierazitako epeetan.

Gizonen eta emakumeen arteko I. Berdintasun Plana, eta genero indarkeriaren aurkako

Berdintasunezko gizarte bidezkoago baterantz



Zigoitiko Udala gizon eta emakumeen arteko eta genero-indarkeriaren kontrako Lehen Berdintasun Plana lantzeko partaidetza prozesuan murgilduta dago. 'Osoko parte-hartzea, koordinatua eta zeharkakoa' izatea da helburua, eta sexuen arteko ekitatearen alde modu eraginkorrean parte hartzeko balio dezan nahi dute. Oraingoan, prozesuaren lehen fasea burutu da: diagnostiko bat egin da eta lerro estrategiko nagusiak landu dira. Hori Arabako Foru Aldundiko diru-laguntzari eta udaleko ordezkari politikoei esker izan da posible; eta baita udal eta Koadrilako langileriarri eta Zigoitiko hainbat elkartetako bazkideei esker ere. Denen artean egin dute diagnostikoa; hau da, berdintasunaren kudeaketaren eremuan, puntu indartsuak

eta hobetzeko esparruak biltzen dituen dokumentua. Udalerriko eguneroko bizitzako arlo desberdinak aztertu dira: gobernuak, irudia eta komunikazioa, heziketa, parte-hartzea eta enpoderamendua, enplegua, giza zerbitzuak, osasuna eta bizi-kalitatea, genero indarkeria, erantzukidetasuna eta kontziliazioa, kultura, euskara, kirola eta gazteria, hirigintza, garraioa eta ingurumena. Arlo horietan guztietan praktika onak atzeman dira eta, aldi berean, baita hobetzeko puntuak ere.

Hobekuntza-esparruak

Ana Artetxe, Berdintasunean aditua eta diagnostikoaren egilearen arabera, Zigoitiabizimaila oneko udala da, gatazka sozial urrikoa. Gero eta herri-izaera sendoagoa ikusten



da eta, herritarren gehiengo baten aldetik, parte hartzeko joera handia. Ondorio orokor gisa, eta hobekuntza-esparruen barruan, Ana Artetxek adierazten du rolak eta genero estereotipoak ugari direla, beste udalerrri batzuetan bezala. Horregatik komenigarria litzateke, proiektuari jarraikortasuna emateko, biztanleria, langile teknikoak eta ordezkari politikoak genero kontuetan sentsibilizatzea. Aldi berean, kezkarria da gazteek nolabaiteko atzera pausua adieraztea eta gomendagarria litzateke haien arteko berdintasunezko eta bortxakeriarik gabeko erlazio-eredu positiboak sustatzea. Indarguneen artean aipatzen da gaur egungo Korporazioan emakumeen ordezkartza: % 33koa da, orekatik hurbil dago. Bestalde, udalak badu harremana *Berdinbidean* zerbitzuarekin, bere zereginetan berdintasunaren kudeaketa handitzen ari den seinale.

Berdintasun Planaren hurrengo pausoa, diagnostikoa elkarriketetan parte hartu duten pertsonekin partekatzea da. Eta geroago planaren operatibitatea lantzea, orain bezala, modu partehartzailean. Asmo handiko plan baten lehenengo urratsak besterik ez dira: udala buru duen ekimen batena, baina, arrakasta izatekotan, herritarren eskuetan izango duena.

Udako jaiak eta emakumeen aurkako erasoak

'JAIETAN, ez zaitez pasatu, eta ez pasatzen utzi!'

(...) emakume askok eta, nire ustez, gizonetako askok ere, urdailean ziztada bat sentitu dugu San Fermin jaietako argazki batzuk ikustean; horietan, gizonetako batzuek erdi biluzik zeuden emakumezko gorputzen kontra jotzen zuten titiak ukitzeko, prakak jaisteko... eta irudiok mezu hau itzultzeko arriskua dute: jaietan lizentzia dago nahi dena egiteko emakumeen gorputzarekin eta, emakumeak hori baino gehiago ez gara, gorputz horiek atsegin izateko daude, ukitzeko, erabiltzeko. Ezin dugu ahaztu zein testuingurutan gertatzen diren ekintza horiek. Ezin dugu ahaztu jaiak, askotan, sexu-erasoetarako toki aproposak bihurtu direla; eta egun hauetan ikusi ditugun irudiek ez diote ezer laguntzen erakunde eta gizarte-mugimenduek egiten duten lanari, hain zuzen, erasorik eta jarrera matxistarik gabeko jaien eta gizartearen alde egiten dutenari. Erasorik gabeko jaiak nahi ditugu, baita horiek sustatzen dituzten jarrerarik gabekoak ere. Ez dugu inor pasatzea nahi, ezta inork paso egitea ere, ezta inork bestaldera begiratzea. Hortaz, jarrera aktiboa eskatzen dugu emakumeak errespetatzen ez dituzten edozein adierazpen fisikoren edo hitzekoren kontra. Gure jaietan berdintasunezko harremanak egotea nahi dugu, bi alderdiek onetsiak, non emakumeek jaia eta eremuak partekatzeke gizonetakoek duten eskubide bera izango duten, haien segurtasuna eta eskubideak bortxatuak izan gabe. Horrenbestez, pertsona guztiak, gizonetakoak eta emakumezkoak animatu nahi ditut, jaietan jarrera proaktiboa erakuts dezaten emakumeen eskubideei eraso egiten dieten jarrera matxisten kontra; era berean aprobetxatu nahi dut tokiko erakundeak eta mugimendu feministak animatzeko eta zoriontzeko, hainbat kanpaina eta ekimen abian jartzen baitituzte, jaietan erasoak saihesteko.

(*) Izaskun Landaidak, Emakunde Zuzendariak idatzi duen gutunaren zatia. Osorik irakur dezakezu hurrengo estekan <http://goo.gl/LzAij> o en la web www.emakunde.euskadi.net orrialdean.

Udalak Garoñaren itxiera eskatu zuen, gehiengo osoz, maiatzean

Nuklearra edo berriztagarriak?

Zer dakizu energia nuklearrari buruz? Arduratzen zaitu? Udala bai. Benetan. Eta horregatik, joan den maiatzean gehiengo osoz (8 boto alde eta 1 aurka) onartu zuen mozio bat Garoñako zentral nuklearraren behin betiko itxiera eskatzeko. Uztailean, Estatuko Aldizkari Ofizialak argitaratu zuen Burgoseko zentral nuklearraren ustiapenaren behin betiko amaiera ezartzen zuen agindua. Hala ere, Gobernu Zentralak iragarri zuen, orduan, beharrezko aldaketa arau-emaileak hasiko liratekeela Garoñak jarraitu ahal izateko, 'horrela posible balitz'. Beraz, gaia ez dago itxita, Garoñaz gain beste 5 zentral gehiago daudelako Espainian (Trillo Guadalajaran, Cofrentes Valentzian, Vandellos eta Ascó Tarragonan, eta Almaraz Caceresen) eta 8 errektore, guztira.

HAMAZAZPIIn bi aditurekin hitz egin dugu. Bata nuklearren aldekoa, bestea aurkakoa. Gure asmoa da egiaztatutako datuak eta iritziak irakurleei eskaintzea, bere konklusioak atera ahal izateko.



Fernando Legarda,
Ingeniaritza
Nuklearreko EHUko
Katedraduna

Aditu honek dio ezin dela baztertu 'garbi eta segurua den energia iturri bat. Are gutxiago energia horrek gero eta handiagoak diren Gizateriaren hornikuntza-energetiko beharrei laguntzen badie'.

Eta gogorazi digu munduan 1.500 milioi pertsonak ez dutela elektrizitaterako sarbiderik eta gainontzeko 3.000 milioi lagunak sarbidea oso mugatuta dela. 'Mugagabeko sarbidea guk bakarrik daukagu, industrializaturiko munduak', azaldu digu.

_ Bi hitzetan, zer da energia nuklearra? Oso energia iturri ahaltsua da. Elektrizitate iturri oso ahaltsua, ahaltsuena.

_ Zertarako erabiltzen da? Energia elektrikoa ekoizteko bakarrik. Zentral nuklearrek 2011n Espainian sorturiko energia elektrikoaren % 20a baino zertxobait gehiago ekoiztu zuten.

- Zeintzuk dira abantaila nagusiak? Erregai nuklearra edo fosila (gasa, ikatza, petroleoa...) alderatuta, zera gertatzen da, kopuru berarekin nuklearrak beste edozein erregaik baino milioi bat aldiz energia gehiago produzitzen duela.

_ Eta zeintzuk eragozpen handienak?

Energia-iturri guztiak bere eragozpenak dituzte, baina horiek saihesteko neurri egokiak hartzen dira. Energia nuklearraren kasuan, konfinatu behar diren substantzia erradioaktiboak sortzen dira. Ingurumenera askatzekotan, kantitate aproposak askatu behar dira desegokia izan daitekeen minik ez eragiteko. Istripuren bat gertatzekotan, inpaktua handiagoa da, isurketaren kontrol zati bat galtzen delako. Baina horretarako daude larrialdietarako planak, kalteak txikiagotzeko.

_ Bide batez, bazenekien Fukushima zuzendaria hestegorri-minbiziz hil berria dela, 58 urterekin? Bai, Fukushima-ko Zentraleko zuzendariaren kasua ezagutzen dut. Eginbeharraren zentzu handiko pertsona, guztiontzako jarraibide ederra, eta bere heriotza sentitu dut benetan.

_ Bere gaixotasuna lanarekin erlazionatuta dagoela uste duzu? Minbiziak ez dira bereizten haien artean. Ezin daiteke jakin erradiazioak edo beste kausa batek sortu dituen. Gainera, jakin badakigu tumore solidoak, hestegorrikoa bezalakoak, 10 urtera agertu ohi direla; garai hori pasatu arte ez direla azaltzen. Beraz, ez dirudi istripuaren leherketaren ondorio denik.

_ Zer egiten dugu hondakinekin? Gainera, The New York Times egunkariaren arabera, Fukushima-k gutxienez bi urte daramatza hondakin erradioaktiboak itsasora jariatuz? Arduradunek aitortu dute ez dakitela kutsatutako ur ihesak zentralatik itsasora zergatik gertatzen diren, ezta nola gelditu ere. Zentraleko jabeek ur ihesak daudela onartu dute. Horrek adierazten du guztion artean arazoan irtenbiderik egokienak bilatzen ari direla. Gainera, kaltetutako zentraleko esparru batzuetan gordetako kutsatutako ura ez da hondakin erradioaktiboa. Ura da, kutsatutako ura, bota ezin den ura eta hondakin erradioaktiboetarako biltegi batera eraman ezin dena, gehiegi delako. Tratatu behar izango da bolumena txikitzeko. Eta interesgarria izango litzateke gogoraraztea hondakin erradioaktiboak denboraz desaktibatu egiten direla.

_ Gaur egun, zentral nuklearrak gaindi ditzakegu beste energia-iturri batzuk erabiliz? Uste dut ezetz. Berotegi-efektua eta klima-aldaketa saihestu nahi izanez gero, eta nolabaiteko independentzia energetikoa mantendu nahi izanez gero, ezin ditugu iturri nuklearrak baztertu. Horrela dio, gainera, Europar Batasunak.

_ Non bizi zara, Garoñatik zenbat kilometrotara? 60 kilometrotara

_ Inoiz pentsatu duzu Garoñan istripu larri bat gertatu daitekeela? Ez, ez dut horrelakorik pentsatzen. Era berean ez dut pentsatzen bidaiatzen dudana hegazkinak lurra joko duenik ere, ezta gas hodiak lehertu egingo direnik... Ez ditut gogoan hain ongi bizitzea posible egiten digun teknologiak dituen arrisku guztiak. Kalkulatutako arriskuak dira; kalitate eta bizi itxaropenari begira, eta kalteekin konparatuta, etekin handiagoak sortzen dituzte; ezin dugu onartu larritasun motiboa izan daitezen. Aldi berean, hiritarrok eskatu behar dugu gauzak ondo egin daitezela eta industria nuklearraren eraikuntzak eta funtzionamenduak segurtasuna berma dezala, hain zuzen, zorionez egiten duen bezala. Hori dela eta, ez dugu segurtasuna eskatzeko zalantzarik izan behar, baina bizitza errazten digun hori baztertu gabe.

- Zer egingo zenuke, gertatuko balitz? Zalantzarik gabe, larrialdi zerbitzuen argibideak jarraituko nituzke.



Raquel Montón,
Greenpeace-ren
Nuklearren Aurkako
Kanpainaren
Arduraduna

Madrilgo Unibertsitate Politeknikoko Agronomiako lizentziatuta, Raquelek egunero egiten du lan '% 100 berriztagarri, inteligente eta eraginkorra den sistema energetikoa lortzeko'.

_ Zer da energia nuklearra? Zentral nuklear bateko errektore barruan sortzen den eta gero elektrizitate bihurtzen den energia. Baita ere, bomba atomikoen bitartez sortzen den energia.

_ Zertarako erabiltzen da? Zentraletako jabeek, Iberdrolak eta Endesak, zentral horiek erabiltzen dituzte elektrizitatea ekoizteko eta guri saltzeko.

_ Bere abantaila nagusiak. Jatorri nuklearreko elektrizitateak, haize-errotek edo eguzki-taulek bezala, ez ditu sortzen klima-aldaketa eragiten duten kutsatzaileak (CO2-a) eta horregatik bere jabeek bere industriak garbiak direla diote. Baina haize-errotek ez bezala, nuklearraren defendatzaileek ez dute esaten beste oso arriskutsuak diren beste kutsatzaile erradioaktibo ugari sortzen direla, ezta milaka urte dirautela ere. Eta, batez ere, ez dute esaten, nuklearrak erabiltzen jarraitzen baldin badugu, ezin izango ditugula erabili dauzkagun haize-errote guztiak. Eta are gutxiago eduki genitzakeen guztiak, energia nuklearra berriztagarriekin lehian dagoelako.

_ Bere eragozpen handienak. Arriskutsua da istripu nuklearrak gertatzen direlako. Chernobilen (Ukrainan) duela 26 urte gertatutakoa kasu, eta Fukushiman (Japonian) duela 2. Oraindik ere, bi kasuetako ondorioak bizi-bizirik daude. Kutsatzailea da; elektrizitatea produzitzen dutenean, ehunka urtetan zehar arriskutsuak

Raquel Montón, Greenpeace

izango diren hondakin erradioaktiboak ere produzitzen dituzte. Eta oso garestia da; zentral nuklear bat eraikitzeak diru asko behar da eta enpresek lortu dute gobernuek eta guk, herritarrok, zati bat ordaintzea. Hala ere, ekoizten duten elektrizitatea ez digute merke kobratzen, guztiz kontrakoa, eta inor baino gehiago aberasten dira.

– Zer egiten dugu hondakinekin? Ezin dugu ezer egin. 50 urteren ondoren, industria nuklearrak ez daki zer egin hondakinekin eta horregatik gorde, lurperatu, estali egiten ditu. Baina ez dute konponbiderik. Momentuz, gehiago produzitzeari utzi behar da. Eta ikertzen jarraitu, ditugun baliabideei irtenbidea aurkitzeko. Eta, bitartean, ahalik eta leku seguruenean gorde.

– Zentral nuklearrak gaindi ditzakegu beste energia-iturri batzuk erabiliz? Bai. Espainiak, kontsumorik handieneko uneetan, behar dugun elektrizitatearen bikoitza produzitzen du. Aspalditik, energia berriztagarriek nuklearrak baino elektrizitate gehiago produzitzen dute eta, batez ere, duela 7 urtetik hona, Greenpeace-n argitaratzen ditugu behar dugun elektrizitate guztia berriztagarriekin soilik produzitu ahal izateko kalkulu tekniko eta ekonomiko guztiak. Eguzkia eta haizea doakoak dira, eta guztionak.

– Bide batez, bazenekien Fukushimako zuzendaria hestegorri-minbiziaz hil berria dela, 58 urteekin? Bai. Fukushimako erreaktoreetako kutsatutako uraren jario berri baten notziarekin batera ezagutu dut. Konpondu ordez, bi urte daramatzatelako erreaktoreak milaka litro urekin *ureztatzen*; ez dute beste konponbiderik. Ura kutsatuta geratzen da, eta etengabe iragazten zaie eta ihes egiten die. Bertako arrantzaleak behin eta berriro egiaztatzen ari dira, duela bi urtetik, nola dauden arrainak erradioaktibitatearekin kutsatuta. Istripu nuklear bat ez da hilabete bateko kontua, edo urte batekoa. Hamarkadatan irauten du, erradioaktibitatea ez da desagertzen, arriskua ez da desagertzen eta kostu ekonomiko ordaintzen dutenak biktimak dira.

– Bere gaixotasuna lanarekin erlazionatuta dagoela uste duzu? Pentsatzen dudana da inork ez duela bere bizitza arriskatu behar bere lanean, eta Japoniako zentral nuklearretako langileek eta Chernobillekoek hori behar izan zutela. Eta haietako asko hil dira.

– Non bizi zara, Garoñatik zenbat kilometrotara? Madrilen, 270 kilometrorara; Segoviatik hurbil.

– Inoiz pentsatu duzu Garoñan istripu larri bat gertatu daitekeela? Hain zuzen ere, pentsatu dugulako, Greenpeaceen istripurik gerta ez dadin egiten dugu lan. Eta horregatik nuklearrak ixtea nahi dugu. Ez dela gertatuko ziurtatzeko forma bakarra da eta. Gainontzekoa aukeraren eta zoriaren esku dago.

– Zer egingo zenuke, gertatuko balitz? Japoniko kasuan Greenpeaceko lagunek egin zuten gauza bera, jendea lagundu. Kaosa eta desinformazioa itzelak izan ziren eta Greenpeacek, bere datu eta aholkuekin, hainbat eta hainbat pertsona, udalerrri eta erakundemota lagundu zituen. Industria nuklearrak, istripuak egoten direnean ere, ez dio gezurrak esateari uzten. Lehenengo egunetan ez zuten istripu nuklearra gertatu zela aitortu ere egin. Gero zergatiei buruz gezurra esan zuen. Eta beranduago jakin genuen bazekiela horrelako zerbait gerta zitekeela, eta ez zutela ezer egin hura saihesteko.



Zigoitia Euskaraz

Urte osoan zehar... eta baita iraileko bi asteburutan ere!

Iraila nagikeriarekin lotzen dugu normalean, edo, hobe esanda, nagiak kentzearekin... Ikasturte berri bat dugu begien aurrean, lan berriak, konpromiso berriak. Eta, hala ere, Zigoitian ez da hasiera hori hain astuna egiten... Iraila, urtero, hainbeste nekatzen ez duen beste ariketa batez lagunduta baitator: mingainari eragitea!

Horixe du helburu gaur egun Zigoitian egiten den jarduera antzinakoenetako batek: ZIGOITIA EUSKARAZ ekimenak. Ikasturtea euskaraz hastea, mingainari euskaraz eragiteko aitzakia bat ematea denoi. Euskara kalera ateratzea, eta gure ahoetara sartzea. Festa-giroak horretan asko laguntzen baitu: azken finean, egiten diren ekitaldiak jendearen bilgune dira, eta bilgune horietan euskal hiztunek aukera gehiago dituzte hizketarako.

Bizikletazko ibilbidea

Aurten, irailaren 7 eta 8ko asteburuan hasiko dira ekitaldiak. Beti bezala, Zigoitiko herrietan zehar ibilaldi polit bat egiteko aukera izango dugu lehenengo: irailaren 7an, larunbatean, 16:30etan Akostan hasi eta Buruagaraino joango gara, bizikletak hartuta. Ondoren, bertan, jatekoa eta edatekoa egongo da (indarrak erreperatzea oinarritzakoa da...) eta baita beste hainbat ekitaldi ere: umeentzako antzerkia, dantza plaza...

Hurrengo egunean, irailaren 8an, Etxaguenen, euskarazko meza egongo da, abesbatzarekin. Ondorenean, *Oketa Alai Dantza Taldeko* erakustaldia eta, ondo bukatzeko, bazkialurreko luntxa.



lazio Zigoitia Euskaraz.

Hala ere, dakizue, Zigoitia Euskarazek bigarren asteburua izaten du indartsuena. Irailaren 14an Zigoitiko Kuadrillen eta laguntaldean arteko joko eta jolasak egingo ditugu, Gopegin. Gero eta parte hartze handiagoa duen ekimena da hau, eta Hamazazpiren bidez deialdia egiteko aprobetxatuko dugu: ez da sasoi fisiko berezirik izan behar parte hartzeko. Ondo pasako duzue, seguru. Beraz, animatu!

Irailaren 15a, igandea, izango da egun printzipala. Udalak, baimen kontuak direla eta, antolakuntzan parte hartu ezin duen arren, Mairuelegorretan ekitaldi bat egingo da, egitarauaren osagarri (gainera, artista garrantzitsuren bat etortzeko dela esan digute. adi egon!).

Mairuelegorretan festa

Ondoren, eguerdian, egingo da herri bazkaria, eta arratsaldeko festa, ZESUMA berbena taldearekin. Bazkarirako txartelak salgai egongo dira laster, irailaren 11ra arte.

Besterik gabe, parte hartzera animatzea besterik ez zaigu gelditzen. Atera zuen euskara plazara, kalera: gutxi edo asko jakin, berdin dio. Gero eta gehiago erabili, ez da gastatuko: kontrakoa, aberastu egingo da!

Zigoitiko Pilota Eskola martxan!

Udalerriko 6 - 16 urte bitarteko neska-mutil guztiei irekita egongo da



Zigoitiko pelotariak, Arabako Herriarteko Txapelketako aurtengo irabazleak.
Argazkia: **Ramón Urbina**.

Esku-pilota, pala, zesta punta, trinketa, frontenisa, paleta larruz... Zigoitiko umeek Euskal Pilotaren mundu polit eta zabalean sartzeko aukera paregabea izango dute berehala. Izan ere, Udalak, Arabako Euskal Pilota Elkartearekin batera, irailean *Zigoitiko Pilota Eskola* jarri nahi du martxan.

Zigoitiko taldeak osatzea

Ekimenaren helburua ez da nolana hikoia. *Pitxisek*, udalerrian pilotako erreferente denak eta proiektuaren arduradunetako batek, ideien funtsa kontatu digu. "Batetik, Euskal Pilota umeen artean ezagutaraztea nahi dute eta, aldi berean, hala nahi dutenak kirol honetan praktikatzera animatu nahi dituzte. Bestetik, bertako pilotariak Zigoitian federatuta

egotea eta talde bat osatzea nahi dute. Horrela, ez litzateke orain artekoa gertatuko: udalerriko pilotariak kanpoko talde batzuekin federatu eta elkartu behar dira txapelketak jokatu ahal izateko.

Udalerrian Euskal Pilotarekin aspalditik egiten den lanak, sariak ere ekarri ditu. Aurten, adibidez, Zigoitikoek Arabako Herriarteko Txapelketa eskuratu dute. Araba Euskaraz egunean ospatu zen partiduan, Amurriokoei irabazi zieten.

Eskola sortzearekin, gainera, kategoria guztietan pilotariak izango dira eta txapelketa gehiagotan parte hartu ahal izango dute".

Abentura ederra

Abentura eder hau duela 4 urte hasi zen abian. Ondategiko frontoian pelotazale talde txiki bat entrenatzen hasi zen eta pixkanaka, pixkanaka, herriarteko txapelketetan sartu ziren. "Horrek, nolabait bultzada bat suposatu zuen. Eskua sartu genuen herriko jaietan ere, Eguzki Jaian eta horrelako ospakizunetan. Pasa den ikasturte honetako hasieran umeen familiak elkartu ziren eta Xabi Nafarrate monitorea gisa kontratatu zuten. Bere pilota partidak antolatzen hasi ziren eta, partida gehiago jokatzeko, beste klubekin harremanetan jarri ziren. Nesken partidak ere ekarri zituzten eta Euskadiko Selekzioan dauden neskek etorri ziren..." gogoratzen du *Pitxisek*. Pilotaren egarria handitzen joan zen eta pasa den kurtsoan guraso batzuk elkartu ziren eskola bat martxan jartzeko asmoz. Momentua ailegatu da. Uda ondoren, ikasturte berriarekin, *Zigoitiko Pilota Eskolak* ere bere ibilbidea hasiko du. "Hemen kriston zaletasuna dago - azaldu digu *Pitxisek*-. Frontoia beteta dago beti. Hiruhilekoan behin egiten den frontoi zozketaren bidez bertako eta kanpoko jendeak ordu guztiak hartzen ditu". Orain, Zigoitiko pilotarien ordua da.

Info gehiagorako: T_ 645 87 51 31 (Pitxis)

ZIGOITIKO EUSKAL PILOTA ESKOLA



ANIMA ZAITEZ PARTE HARTZERA!



**HASIERA: IRAILAREN 13AN (OSTIRALA)
17:00ETAN FRONTOIAN**



ARGIBIDE
Pitxis: 645875131
Udaletxea: 945464041

ZIGOITIKO UDALA



UDAKO PILOTA KANPUSA

Argazkiak: Xabi Nafarrate.

Herriak Bultzatuz kanpainak euskal pilotaren praktika Arabako herrietako neska-mutielei hurbiltzea du helburu. Ekimen honen eskutik, pasa den uztailan Euskal Pilotako Kanpus bat burutu da Ondategiko frontoian. Xabi Nafarrate pilotariak zuzenduta, dozena bat mutilek ESKU PILOTA, PALA, ZESTA POTE eta PUTXEAK praktikatu ahal izan dituzte. Primeran pasatzeaz gain, pilota kirolaren oinarriak ezagutu zituzten.

Garbitxiki berria



Maeztuko Garbitxikia. **Argazkia:** Arabako Foru Aldundia.

Laster izango dugu **Garbitxiki** berria Zigoitian, hondakin bereziak birziklatu ahal izateko. Toki itxi batean kokatuko da, kontrolatutako sarbidearekin. Ondategiko sarreran hain zuzen, propano biltegiaren eta gazteek erabilitako aurrefabrikatuen hegoaldean. Arabako Foru Aldundiak bultzatuta, 3 edukiontzi berezi izango ditu: **Tamaina Handiko hondakinak** biltzekoa (altzairuak, elektrotresnak... jasotzeko), **Inausketa eta lorezaintza hondakinatarakoa**, eta baita **Obra-hondakinatarakoa** ere (etxeko obra txikietakoa adreiluak, teilak eta harrietarako. Profesionalek Gardelegi edo baimendutako beste zabortege batera joan behar dute). Izan ere, Garbitxikiak **hobi** bat eta **etxola** bat izango ditu olioak eta ontzi fitosanitarioak biltzeko. Puntu garbi berria funtzionatzeko prest izango denean, bizilagun guztiei jakinaraziko zaie, nola erabili behar den adieraziz.

Hurrengo ikasturterako

Kirol eta Kultur Jarduerak

Batzuek oporrez eta udaz gozaten jarraitzen duten bitartean, beste batzuek lanari jo eta ke ekiten diote, datorren ikasturteko kirol eta kultur jardueren programa burutzeko. Aurreko urteetan bezala, helduei zuzendutako kirol eskaintzaren baitan hamaika ikastaro aurkituko ditugu: Aerobik-GAH (gluteoak, abdominalak, hankak), Mantentze gimnastika, Yoga, Tai-jia, Pilates eta Aerobik. Kultur ekintzen artean eskulanak, antzokia eta jostintza eskainiko dira.

Fofutxak eta Arteterapia

Berritasun nagusiak monografiko bi izango dira: Fofutxak lantegi bat eta Arteterapia-ko beste bat. Azken honetan dantza, musika,



argazkigintza eta margolaritza praktikatzeko aukera izango da, besteak beste. Ume eta gazteentzat, udalak Haurrentzako judo eta Gazte-aerobik eskainiko ditu (gainontzeko haurren jarduerak Gorbeia Eskola-ko IGEak eta Musika Eskolak antolatzen dituzte). Ohi den bezala, ikastaro guztien zerrendarekin liburuxka bat argitaratuko da eta irailean udalherri osotik etxez etxe banatuko da. Ikastaroak urrian hasiko dira.

Gorbeia Eskolako IGE, edo nola parte hartu gure umeen heziketa-bizitzan

Nortzuk dira?

Gorbeia Eskolako Ikasleen Gurasoen Elkarte. 68 bazkide daude (Eskolako familien % 70a).

Zein da bere helburua?

IGE-ren xede nagusia da bere seme-alaben heziketan parte hartzea, posible den neurrian.



Nola egiten dute?

Erabakiak asanblada baten bidez hartzen dituzte erabakiak, eta elkarteko 5 pertsonen ostatutako batzarrak barruko lana eta asanbladak berak hartutako erabakiak aurrera eramaten du. Gainera, Eskolako Ordezkaritza Goreneko Organoan (antzinako Eskolako Kontseilua) parte hartzen dute, beste guraso batzuekin batera. Era berean, eskolako heziketa taldeari laguntzen diote lankidetzak beharra duten jarduerak prestatzen, antolatzen edo diru-laguntzak ematen. Eta beren jarduerak ere antolatzen dituzte: eskolaz kanpoko klaseak, gurasoentzako hitzaldiak, ibilaldiak, jaiak (Olentzerorena, kurtso amaierakoa...), bigarren eskuko azoka txikia... Pasa den ikasturtean, gainera, Korrikako lekukoa eraman zuten irakasleekin batera erositako kilometroan.

Hurrengo ikasturterako berritasunak

Irailean ikasleentzako sukaldaritza monografiko bat antolatuko dute. Eta baita eskolaz kanpoko ingeles-klaseak ere, 'udalherriko herritar oso kompetente baten eskutik', kontatu digutenez.



Lortutako arrakastaren bat

Joan den ikasturtean Gorbeia Eskolako kultur eta kirol jarduerak guztiak antolatu ahal izana. Horien barne, lehenengo hezkuntzako 2. eta 3.eko ikasleentzako ikasketa-teknikei buruzko monografikoa. 'Oso erabilgarria gure txikiek heziketa-bide gogorra erraztasunez has dezaten', azaldu digute. Gainera, *GoikoFesten* parte hartu zuten. IGEko familiek hamaiketarako arrautzopilak prestatu zituzten, bokatak prestatzeko lehengaiaren parte bat erosi zuten eta lantegi batzuk antolatu zituzten: aurpegi margoa, ilekordak, txapak egiteko... Oso egun hunkigarria izan zen. Pasa den ikasturtean Goikok kamiseta bat IGERako diseinatu zuen: *eta nik txoria nuen maite* logoarekin aurten berde kolore eder batez saldu dutena (ia 300 kamisetak).

Bazkideentzako abantailak

Eskolaz kanpoko jarduerak eta ibilbideak merkeagoak dira bazkide diren familietako umeentzako. Eta testu liburuak erosteko diru-laguntza txiki bat daukate.

Partea hartu nahi baduzu

ampagorbeiaeskola@gmail.com helbide elektronikora idatzi edo eskolan galdetu.

Amnesiko baten memoriak liburuan, Erik Satie-k honakoa zioen: «Zer axola du, liburuak hor daude, gure aurrean; atsedean hartzen gonbidatzen gaituzte, behatzekin eta begiradarekin ferekatuz – ondoren beraiez ahazteko, lasaitasun osoz – eta hain zaharra den giza Miseriarekin lotzen gaituzten lotura zitalak mespretxatzen ere bai». “Zer axola du!” hori atsegin dut, hasieran erabiltzen duena, oso erabilgarria baita. Are gehiago: esango nuke Guztia gaituzten duela. Baita “giza Miseriaren” M larri hori ere.

Beste frantziar batek, René Char-ek, “Ohiko presentzia” (*Alianzak* bildutako antologiari titulua ematen dion olerkiaren izenburua) liburuan, honakoa dio:

«Mugi zaitetz.

Mugitu eta erakutsi

Dagokizun miresgarritasun- Eskuzabaltasun- eta errebelia-zatia.

Hain zuzen ere, atzerapena daramazu bizitzarekiko, adierazkaitza den bizitza horrekiko,

Azken finean, zeure egitea onartu duzun gauza bakarrarekiko,

Egunero izaki eta gauzek ukatzen dizuten horrekiko.

Bizitzaren eskutik jasotzen dituzu, han eta hemen, nekez,

Zenbait puska gordin

Errukirik gabeko borroken ondorioz.

Hortik kanpora, dena da

agonia otzana, amaiera zakarra».

Poema ebaki dut. Dena den, Char-en zatiak Satie ulertzeko gakoa ematen digu. Ez da ihes baten kontaketa, ukatzen diguten Bizitzaren konkista baizik (konkista horren emaitza, bestalde, porrota izango da, seguru. Eta zer? “Berdin da. Probatu berriro. Egin porrot berriro. Egin porrot hobeto”, Beckett-ek esango zukeen bezala.)

Liburuak eta olerkariak, urpekariak bezala, zundaketa-lanetan dabilta Bizitza Adierazkaitzean. Jakin badakite hondoan, ertz abisala, ez dutela inoiz ezagutuko; iluntasun distiratsu horretara asfixiarene eta estasiaren bidez bakarrik iritsi ahal izango baitira. Irtsi ezin den geografia eta denontzako presentzia nahikoa arrazoi dira literaturarentzako (bizitza bera baita, ez besterik) eta hazten doan liburutegi baterako.

Liburutegi baten aldeko arrazoiak

Testua eta argazkiak: **J. Arbulu**



Ardo apur bat eta ogi puska baterako arrazoiak

Abadela etako lagunak gure liburutegian egon ziren. Beraiekin zerikusia duen oro bizi-bizirik dago dago. *Akelarre* aldizkariko hurrengo alerako beste geografia mota bat proposatzen dute: Zigoitiko bide zaharrak berriro ere urratzea. Pausoz pauso, bideetako hautsa eta lastoa garbitzea. Ez harritu hor zehar aurkitzen badituzue, zuen etxeko ateraino iristen, bide zaharberrietan oinez. Galdezka hasten bazaizkizue, ez iezaiezue hitza bakarrik eskaini: eskaini ardo eta ogi apur bat, kaminoetako hautsa, antzinako bidelagun hori, baitakarte itsatsita.

Eskean gabiltza, oraindik ere

Aste honetan jarri dituzte salgai ABACen naufragioaren ondorengo arrastoak, azkeneko prezioak. Han egon ginen. Zenbait gauza erosi genituen. Hondamendiak utzi dizkigun hainbat opari zoragarri. Parabola hartan bezala: hondartza-ertzerat olatuak ekarri eta itolarrian dauden arrainekin zoriontsu diren kaiok izan gara. Bizitza, beste behin ere; edo, agian, zoritxarrez Bizitzaren beraren zati den kapitalismo basatia.

Laster, titulu berriak katalogatuko ditugu. Hala ere, DVD formatuko filmen beharra dugu oraindik ere. Badauzkagu batzuk, baina askotan mailegatzen ditugu, eta gure erabiltzaileek berrikuntzak behar dituzte. Ikusita duzun filmen bat baduzue, eta ematea ez zaizuela gehiegi kostatuko iruditzen bazaizue, zentzura ekar diezagukezue, edo gurekin harremanetan jarri:

liburutegia@zigoitia.org



Sinadura

Amnesiko baten memoriak liburuan Erik Satie-k zioen: “Erik Satie dut izena, mundu guztiak bezala”. Hala ere, nik ez dut Erik Satie izena. Publikoan, jendaurreko agerpenetan, gauzek aurpegia dute edo izena daramate; nirea, zorionez edo zoritxarrez, Javier Arbulu da.

Alokairu udal etxebizitza

Medikuaren etxe zaharrak, aurreko legealdiko Ur Partzuergoaren egoitza bezala erabili izana, bizitza berria izango du laster. Ur Patzuergoa udal bulegoetan birkokatu ondoren eta etxebizitza erreforma garrantzitsu bat egin eta gero, Udalak alokairuan eskainiko du. Etxeak 102 m²ko azalera erabilgarria dauka; beheko solairuan eskailerekiko sarbide bat eta goikoan aretoa, 3 logela, sukaldea, bainua, komuna, jaki-gordailua eta terraza bat. Hileroko errenta 250 eta 450 euro bitartekoa izango da, familia-unitatearen arabera.

Lehiaketa publikoa

Udalak Zigoitiko seme-alabak dituzten familiei lehentasuna eman nahi die, baina interesatu guztiek babes ofizialeko etxebizitza-alokairurako Eusko Jaurlaritzaren araudiak ezarritako sarbide baldintzak bete behar izango dituzte. Bestek beste, udalerrian gutxienez 2 urtez erroldatuta egotea, eta urteko 3.000 €

eta 39.000 € bitarteko diru-sarrerak egiaztatzea. Alokairuko-kontratua lehiaketa publiko baten bitartez esleituko da, baremazio irizpideen arabera, lortutako kalifikazioko ordenari jarraituz. Alokairu kontratuak 5 urte iraungo du eta Udalak, 2 urtez behin, etxetiarrak sarbide-baldintzak betetzen dituela egiaztatuko du. Interesatu guztiek eskaera aurkeztu behar dute Zigoitiko Udaletxean, Bengolarra kalean, harrera ordutegiaren barruan eta **irailaren 30era arteko epean**.

Informazio gehiagorako:

Zigoitiko Udala · Bengolarra, 1 · T_945 46 40 41



Autobusen ordutegiak

ETXAGUEN → VITORIA-GASTEIZ		10A LINEA	
	ETXAGUEN	ETXAGUEN	VITORIA-GASTEIZ
	7:00	7:02	7:04
	10:00	10:02	10:04
	15:35	15:37	15:39
	20:50	20:52	20:54
	7:08	7:10	7:13
	10:08	10:10	10:13
	15:43	15:45	15:48
	20:58	21:00	21:03
	7:18	10:25	21:15
	7:50	10:50	21:40
*Hurbiltzeko zerbitzua, aldeaz aurretik abisatua Letra beltzez dauden ordutegietan, ikusurtean zehar bakarrik ematen da zerbitzua		*Servicio de acercamiento con aviso previo Los horarios en negrita sólo se realizan durante curso escolar	

VITORIA-GASTEIZ → ETXAGUEN		10A LINEA	
	VITORIA-GASTEIZ	VITORIA-GASTEIZ	ETXAGUEN
	9:00	9:42	9:46
	14:45	15:27	15:31
	20:00	20:42	20:46
	9:25	9:48	9:50
	15:10	15:33	15:35
	20:25	20:48	20:50
*Hurbiltzeko zerbitzua, aldeaz aurretik abisatua		*Servicio de acercamiento con aviso previo	